


Bidebieta



Lanak martxoan
hastea
espero da

erregional mailako talde bat sortzea litzateke 18 urtetik gorakoek futbolean jarrai dezaten”.

Serranok gogorarazi digunez, Lengokoak taldean 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoak aritzen dira. Zelaiaren egoera negargarria zela medio, gazte mailan aritutako hainbat lagunek hanka egin zuten bere garaian. Horregatik, datorren urtean hauetako batzuk berreskuratzen saiatuko dira Lengokoak-eko kideak, erregional mailan aritzeko. Hori gutxi baltz bezala, ez dute baztertu emakumezkoen talde bat sortzeko aukera.

Alde Zaharreko kideak ere itxaropentsu dabilta. Entrenatzaileak dioenez, “*Jasonebaso futbol zelaia egun nola dagoen ikusita, neska batzuk nazka-nazka eginda daude. Batzuek taldean jarraitu dute bazekitelako belarra jarri behar zutela. Hau da, belarra jartzea behingoz erabaki izan-nak taldeak aurrera jarratzea ahalbidetu du*”.

Belar artifiziala Jasonebason

Datozen urteetan aldaketa asko egitekoak dira Bidebietan. Kontadoreseko etxebizitzak, auzoko sarreran egitekoa den errotonda, eliza ondoko parkea... Lan hauekin guztiekin batera, 2003. urteko martxoan Jasonebaso hartxintzarrezko futbol zelaian belar artifiziala jartzen hasiko dira.

Xabier Etxabe

Jasonebaso futbol zelaia La Asuncion ikastetxearen ondoan dago eta duela 30 bat urte eraiki zen. Egundonostian geratzen den hartxintzarrezko futbol zelai bakarrenetakoa da,



eta egoera tamalgarrian dago: zuloak daude nonahi eta euri tanta batzuk botaz gero, labainkorra da oso. Horregatik, Udalak, bertan jokatzeko duten taldeen kexak entzun ondoren, lanean hasteko garaia iritsi dela erabaki du. Alde batetik, belarra jarriko dute eta bestetik, aldagelak berrituko dituzte. Nabarmenezkoa da, harmailak eta autoentzako aparkalekua ere egingo direla.

Erabiltzaileak pozik

Jasonebason bi taldek entrenatzen dute egunero arratsalde partean eta asteburuetan partidak jokatzeko dituzte: Lengokoak eta Alde Zaharra taldeek. Lengokoak taldeko presidentea, Antton Serranok, adierazi digunez, “*Jasonebason belarra jartzea onuragarria izango da gure taldearentzat, buruan ditugun asmo ugari aurrera eramango ditugulako*”. Zaharberitzé lanez Udala arduratuko dela eta futbol zelaia Gipuzkoako Futbol Federazioaren esku geratuko dela azaldu digu Serranok. Orain arte, Jasonebaso azpiegitura irekitzat jo dute eta, gainontzeko azpiegitura ire-

kiak bezala, Kirol Patronatuaren esku egon da. Zaharberitzé lanez ondoren, Jasonebaso ez du Kirol Patronatuak kudeatuko, eta edonork ezin izango du erabili. Futbol Federazioa arduratuko da futbol zelaiak eta Federazioak berak erabakiko du zein talde aritu daitekeen eta zeinek kudeatu behar duen.

Alde Zaharra taldeko neskek ere Jasonebason belarra noiz jarriko zain daude. izan ere, Gipuzkoan, Jasonebaso izan ezik, futbol zelai gehien gehienak belarrezkoak dira dagoeneko. Alde Zaharra taldeko entrenatzaileak nabarmendu digunez, “*egun Jasonebaso oso arriskutsua da, zuloak direla eta, hamaika lesio izan direlako*”.

Etorkizunerako hainbat asmo

Behin belar artifiziala jarrita, Lengokoak-ek egitasmo batzuk gauzatu nahi lituzke. Anttonek dioenez, “*egun, gure elkartean futboleko aritu nahi duten 18 urtetik gorako gazteek ez dute aukerarik. Hortaz, gure ametsetako bat*

Kurosawari buruzko zine ikastaroa

Bidebietako Kontadores gaztegu-neak Arri Kurosawari buruzko zine ikastaroa antolatu du. Besteak beste, zinegile japoniarren “Trono de sandre” eta “La floraleza escondida” eta “Yoyimbo” filmak emango dira. Ikastaroa azaroaren 14an hasiko da eta zine emateko Kontadoreseko 943390122 telefono zenbakia hots egin daiteke.